



**"NO
SE
DICE**

ERRETRETE"

LUIS MARIA MUJICA

On Kosme maisua, masailezurak eta okotza ongi astinduz, kasik hortzik gabeko aho alargunean *mahaspsa* batzu sartu ahala mastekatzen ari zen. Eskuan erregela zuen, eta begi moteletan betaurreko biribilzikin batzuk, sudur luxe, gakoduna nabarmenagoa egiten ziotelarik betarte urrian. Ismael, Manueltxo eta Joxe Felixen pupitreak eskola-gelako azken puntan zeuden. Maisuaren so motela nekez iristen zen hiru mutikoen mahaira.

Maisuak okotzean bizar-multzo urdina zuen. Deus ere egi-tekorik ez zuenean, bizartxo bi eskuez, etengabeki, ukitzen zuen, ferekatuz bezala.

On Kosme ikasle baten erredakzioa zuzentzen ari zen, ganoragabe. Noiz-noiz, sudurrean zimur itsusiak jartzen zituen "baca", "errecado", "erretrete", "haser pues" gisakoak irakurtzean... Irakurketaz nekatzean, zigarroa pizten zuen astiro, errautsak bata koipedun, grisera erortzen zitzaizkiolarik, noiz-noiz. Mahaia ere zigarro-txinpartek eginiko pikorta beltzez josita zegoen.

Beti susmati egon ohi zen atzeko mutil-hirukoteak zein aldrebeskeria eginen. Egun hartan, ordea, biziki harritia zegoen hirukotea aski formal eta isil zegoelako.

Eskola ondoan Ximonaren astoa, bestetan bezala, bide-murkoetako belarra jaten ari zen. Asto galanta gaurkoan larreran zebilen, baina joan zen astean beraldiko espektakulua eman zuen, Ismaelek eta Manueltxok, isil-isil, ipurdian pipemina sartu ziotelako. Hura eskola-festa mutilena astoa putinka eta arrantza ozenak botatzen hasi zeneko. On Kosmek egun hartan, gelako isiltasuna gorde-nahiaz, bi erregla handi pitzatu zituen mutikoen kaskoetan. Baita Berasaneko Matias pupitrepera bota, ostikoz. Maisua, bere onetik aterata, su eta fu jarri zen, Matiasek arbeleko ertz batean soro ondoan ikusten zen astoa disimuloz marraztu baitzuen, azpian "*Paxagorri*" idatziz. On Kosmeri "*Paxagorri*" izengoitia mutikoen klasean paxak jaten aritzen zelako leporatu zioten.

Maisuak poltsikotik, berriro, paxa-aleak atera zituen, eta okotza ongi astinduz Ismaelengana joan:

-Ismael, tráeme el cuaderno. ¡Qué extraño que hoy estés en silencio!

Beste bi paxa-ale eraman zituen ahora, eta ondoren:

-Enséñame la redacción.

Paxagorri idazketa irakurtzen hasi zen. Idazketa-gaia "El último paseo" zen. Ismaelek honakoak zituen idatzirik letra bal-darrez:

"Aier al monte i hizimos..., y vimos un muxarra, y piedra tiramos y en anca pegamos...".

Halakoak irakurtzean Paxagorrik", amorrupitsetan, mutilarengana joanda:

-¡Animal! Es imposible escribirlo más torcido- eta, aktoan, beraldiko zaplatakoa eman zion, koaderno hormaren kontra jaurtikiz. Eskola guztia izuz gelditu zen.

-Vamos a escribir cien veces "hablo torcido y voy a aprender español".

Eta ahapeka: "Estos aldeanos siguen enseñándoles esa jerga del vascuence...", "¿Para qué les servirá?".

Ondoren ezpainak zakarki mugitu zituen. Goi eta beheko oiak edo entziak astinduz, ernegualdia ematzeko, paxa-aleak eraman zituen berriro ahora. Maisua mahaira itzuli zen eta bertatik:

-A ver, Manuel, cierra el libro.

Berehala, astoak arrantza bota zuen. Mutikoek barre egin zuten ozen.

-¡Silencio! ¡Que los demás también cierren el libro! -Isilgunea egin zen, beste behin, gelan. Aldi hartan eskuineko atetik Teodora, maisuaren arreba xahar, konkortua, azaldu zen eskolako estufan egosten ari ziren babarrunei urdaikia disimuloz botatzera. Teodorak erren egiten zuen gaztetan, operatzerakoan, sendagileak deskuidoz edo eskuineko hanka hiru bat zentimetro gehiago moztu ziolako.

Teodorak babarrun-eltzearen tapakia altxatu zuen. Barruan asto-belarriz marraztutako papertxo bat ikusi zuen. Teodorak, ordea, gelako ekaitza hurbil sumatuz, ezjakinarena egin zuen anaiaren haserrea saihestuz.

-Manuel, ¿dime dónde se encuentra la ciudad de Jaén? ¿En Aragón, en Navarra o en Andalucía?

Manueli, zutitzean, ezkerreko belarrira tiragomaz jaurtiriko paper-pikorta gogorra ailegatu zitzaion. Mutilaren belarrira gorri-gorri jarri zen. Luixito, berriz, atzeko pupitrean Teodoraren bizkarrari konkor galantagoa jartzen ari zen, eta beste astomarrak bati antiojuak.

-Te he preguntado en qué región de España está Jaén -errepikatu zion zakar "Paxagorrik".

Gelako mutil guztiak Manueltxori so zeuden, asto-marrakia egiten ari zen Luixito ezik..

Manueltxok eran zuten ez zuelarik, maisuak:

-¡Siéntate, pedazo de alcorcho! A ver, Jose Félix, levántate y responde.

Joxe Felix baldanki zutitu zen, alboan zuen Joakintxori ukondoa joz. Honek "Asma ezak ba *al den*?" erantzutako esaten zion. Eta halaxe egin ere.

-A ver, ¿dónde está Jaén?

Joxe Felixek bizkor:

-"Asma ezak ba *al den*?"

- ¿Cómo? ¿Que en Bailén? ¡Imbécil! Te he preguntado dónde está Jaén ¿en Aragón, en Navarra o en Andalucía?

Joxe Felixek, berriro:

-"Asma ezak ba *al den*?"

Gelako mutil guztiak algaraka hasi ziren "Jaén/ba *alden/Bailén*" gisako pareatua entzuterakoan. Maisuak, berriz, erregla mahaian hirutan astoki joz:

-Silencio, silencio!- Eta, ondoren, erantzuna jakin nahiaz:

-A ver, ¿qué dice, qué dice?

Eta Joxe Felixek, aktoan:

-"Asma ezak! Lehengoa berrize!"

"Paxagorrik", beste behin, sasi-pareatua entzuterakoan:

-¡Está bien! A las once, durante el recreo, quedarás en la clase..

Jardunaldi molestagarri hura eten egin nahiaz, maisuak beste hiru paxa ahoratu zituen, eta, umore gaiztoz, Joakintxori esan:

-Joaquincho, empieza a leer. Pero no saltes las líneas como ayer.

Maisuak berekiko: "Para qué les enseñarán esa jerga maldita del *vasquera*, que no les sirve ni siquiera para entenderse en la feria de Irurzun", "Yo les voy a desasnar, quieran o no lo quieran...".

Elizako dorrean hamaiketako dangadak jotzen hasi zirenean ordu-erdiko jokualdira irten ziren mutikoak. Ismael eta Joxe Felix, ordea, gelan gelditu beharrean suertatu ziren. Maisua eta ikaskideak irten zirenean, Ismaelek Joxe Felixi esan zion:

-Adi iezadak. Erre egon hadi sagua horma zulotik noiz ir-tengo.

-Zertarako? -erantzun zion, harriturik, Joxe Felixek.

Gutienez, aste betea zen sagu beltz bat gelara ateratzen zela zokalo-zulotik, eta komunetara ihes joaten.

Ismaelek zepoa jarria zeukan animaliatxo harrapatzeko. Solasean zeudelarik, maisua jolastokitik igo zen, eta mahaian egunkaria irakurtzen hasi, bi mutikoen zigorraldia zaindu nahiaz edo. Egunkariaren orriak biziki handiak ziren, eta "Paxagorri" ri aurpegia estaltzen zioten.

-Joxe Felix, sagua erori duk zepoan; isatsa mugitzen ari duk! -esan zion ahapeka Ismaelek.

-Bikain! -erantzun zion Joxe Felixek.

-Kontuz! "Paxagorri" begira diagok.

Maisuak begirada erdigaldu bat bota zuen betaurreko ziki-nen artetik, baina, miopia gaitza zuelako, ez zuen erreparatu deus ere, eta, oster, egunkarira itzuli zen.

-Orain, orain! -esan zuen pozez Ismaelek.

Mutila, anka-puntetan, sagu itoarengana hurbildu zen, eta, isatsetik hartuta, estufan pil-pil egosten ari zen babarrun-eltzera jaurtik, tapakia astiro eta xuabe altxatuz.

Keinu egin zion irribarretsu lagunari Joxe Felixek. Sagu beltza maisuaren babarrunetan gelditu zen egosten okela go-xoa bailitzan..

Hamaikak t'erdietan ikasleak gelara itzuli zirenean onteratu ziren "Paxagorriren" elzeko babarrunek beste jaki apartekorik bazutela gozagarri. Jakia dastatu nahiaz bezala, mutil denak sudur-usnaka hasi ziren.

Maixua, ordea, eguerdiko bazkaritakoan, soilik, enteratuko zen Ismaelen azioaz. Ze jenioa berea sagua platerara Teodorak, ustekabea, atera zionean... Arratsaldean beraldiko sarraskia egonen zen eskolan.

Luixito eta Joxe Felixi etxera bazkaltzera joaterakoan, pilotalekuko hormaren kontra pixa egiten ari zirelarik, Ismaelek esan zien:

-Ni ez niatorrek arratsaldean eskolara.

-Ezta ni ere -erantsi zuen Luixitok-. Amarekin lurtzuna joan nintzela esanen zioat bihar "Paxagorri" ri.

Herriko eskola udaletxeko lehen solairuan kokatzen zen. Nesken gela ezkerretara; mutilena eskuinetara. Komunak, al-diz, beheko solairuan zeuden, alde bitara banatuta.

Manueltxok zioenez, neskek kulerotan erraz ikus zitezkeen tabikera igota. Sargori egiten zuen egunetan pixa-usain mikatz bat hedatzen zen eskola osora eskaileretan zehar. Komunako atetan barrualdetik, klarion urdinez marrazturik, diti handiak, barrabil galantak zintzilik, On Kosmeren okotza, astoa liburu bat irakurtzen, Joxe harakinaren zerri-belarriak, eta abar ikus zitezkeen.

Behin batean, maisuak Luixito nesken komuneko tabikera igota pixa egiten harrapatu zuen. Pixa -plazako iturri-txorrola bailitzan- indarrez zihon harat-honat. On Kosme azaldu zenean, ezin kontrolaturik, pixa-likidoa aurpegira joan zitzaion, prezeski.

-¡Cerdo, marrano! Bájate, inmediatamente, de ahí-esan zion, su eta fu.

Mutilak, maskurian oraindik pixa oparo zuelarik, ezin etenez, horma guztiak likido horiz zoriztindu zituen, nesken begirada lotsatien aurrean.

On Kosmek beraldiko muturrekoa eman zion tabiketetik jais-terakoan. Luixitok prakak zeharo bustita zeuzkan.

-¡Todos a la clase! -esan zien komunetan aurkituriko beste mutiko kuxkuxeroei.

-Hoy quedarás sin recreo. Que mañana vengan tus padres -haserre Luixito pixontziari.

Neskek euren gelara sartu ziren lotsez eta barrez... Nesken maistra, larraundarra zorionez, euskaldun zen. Eulalia Bidaurreta Albarorena. Honek euskaldun hertsu-hertsuak ziren neskei euskaraz adierazten zizkien, maiz,

ikasgaiak. Haren pedagogia itxurazkoagoa zen *odre/zahagi, gualdo/hori, nuda/korapilo, colina/muino, litoral/itsasertz* gisako hitz bikoteak ematen bait zizkien. Neskek mutilek baino aguroago ulertzen zituzten irakurketak, eta aurreratuago zeuden.

Luixito gelara itzuli zenean lagun anitz bere praka bustitara begira gelditu zen. Pupitrera iritsi zeneko liburupean, norbaitek marrazturik, Luixitoren pixak "Paxagorri" ren ahora eginiko traiektoriaren marrazkia papertxo bat topatu zen. Maisua, biziki miopea izaki, ez zen ohartzen atzekaldean marrazkiek sortzen zituzten irri eta katramilez. On Kosme, berriro, egunkaria irakurtzen jarri zen, ikasleei geografia, beste behin, ikasteko aginduz.

Luixito pentsati gelditu zen. Herriko bele, belatxinga, zape-laitz, putre eta beste harrapakari guztiei baino izu gehiago zion maisuak arratsaldean edukiko zuen erreakzioari. Zer gertatuko zitzaion gurasoak jazotakoaz enteratzean?

Luixitok ez zuen altxatzen burua pupitretik.

-Usaia diagok - esan zion irri-mirrika Joxe Felixek Joakintxori, sudur-leihoak ongi zabalitzen zituelarik.

-Bai, Luixitok, pixa ez ezik, kaka ere egin duela esanen nitek.

Maisuak egunkari gaineratik so zorrotza botaz:

-¡Silencio, allí atrás!-oihu egin zuen, eta, ondoren erlojura begiratu. Orduerdia igarota zen, hortxe-hortxe, eta, egunkaria itxiz, supituan esan zuen:

-A ver, Lucas, cierra el libro. Empiezan las preguntas de geografía.

Lukas pupitretik irten zen, eta zutik jarri.

-Dime, ¿dónde está Bélgica? ¿En Europa o en América?

Gure Lukas, masailak gorri-gorri eta belarrietako aza-ostoa ongi zabalik, adi zegoen inguruan zer entzungo, ez baitzuen deus ere ikasi. Kurioski, *Ameriketan Ameriketan* entzuten zuen, alde batetik eta bestetik.

Ziurtasun guztiz maisuari erantzun zion:

En *Ameriketan*

Maisuak, berehaia, erregla mahaian kolpatuz:

-¡So tanto! ¡En Europa! Además, no se dice "Ameriketan", sino en "América".

Arbel aldera bi pausu emanez, bigarren galdera egin zion Lukasi:

-Ahora, dime dónde está Andorra

Lukas lasaitu zen pixka bat; *Andorra* hitza hurbilagoa iruditu zitzaion, *aizkora, atorra, mozkorra, jatorra* gisakoak ezagunagoak baitzituen. Halere, "Andorra herriren bat izanen duk" pentsatu zuen berekiko.

Alboan entzun zuen "Aldatzetik gora" erantzun egiok!"

Mutilak, berehala, "*Andorra estar en arriba del pueblo Aldatz*" -erantzun zuen tinko.

-*"Pedazo de idiota! No has estudiado nada.* - Hau esatean "*Paxagorri*" sudur-zulotako ile-belar punttak tiraka hasi zen erneguz. Eta ondoren:

-*Durante seis días quedarás sin recreo, aprendiendo, además de geografía, gramática española.*

Lukasek "*zerrie!*" esan zion erdiozen.

Eta maisuak, istantean:

- ¿Quién se ríe?

Denak algaraka hasi ziren...

Lukasek, ikarati begoelako, pupitrepean igurtzi zituen mutiak distira interesatez...

Maisuak, berriro, erlojura begiratu zuen. Harritu egin zen, batz beste, bazkaltzeko ordua iritsi zelako, eta esan zuen:

-*Ha terminado la clase. Para la tarde traer los ejercicios de aritmética.*

Mutilak biziki poztu ziren azken hiru hilabetetan beti aritmetikako ariketa *berdinak* eskatzen zizkielako. Maisuak, hain zuzen, *ozta-ozta* asmatzen zuen ikasleei eskaturiko ariketa zenbait arbelan behar bezala egitea. Zatiketa bat ongi ateratzen ez zitzaionean "*Paxagorri*" (disimulatzearen) *geografiara* itzultzen zen, aritmetikako liburua itxiz...